

Ikastolak eta jaurlaritza

BADIRUDI berriro ere gatazka sortzeko arriskuan gaudela Ikastola eta Jaurlaritzaren artean. Lehen sozialistak zirelako Hezkuntza Sailaren buru, bazegoen erraz ulertzeko arrazoia, izan ere, nolatan estatista den indar batek Ikastolei laguntza eman? Gaur Gobernu abertzale baten gidaritzapen gaudela, EAK zuzentzun duelarik Hezkuntza mundua. Lehenago EAJkoak egon ziren, bihar ez dakit nor egongo den, baina bat egon ala bestea, estatista ala abertzalea, gu Ikastolak beti gatazkan, zergatik ote?

Nire ustez ezinbestekoa da ezer egin aurretik, gogoeta sakon bat egitea galdera horri erantzuteko.

Eta lehenik zera esango nuke, gatazkak egon dira, badaude gaur, egongo dira bihar, hori normala da. Egun hauetan irakiten dabil neur burua, egunez eta baita ere gaueko ordu askotan, ideiak, sentimenduak, nahiak... denak gira eta buelta. Azkenean baieztapen batetara iritsi naiz, gatazkak logikoak direla, alegia, eta bat batean lasaitasuna etorri da neregan.

Ikastola sorrera sorreratik, zegoen hezkuntza eredu aldatzeko asmoz jaio zen mugimendua izan zen. Ez dugu historiari egingo, denok gogoan dugu eta gertatutakoa. Ibilian lorpen handiak lortu ditugu, baina helburu haiek, helburu izaten jarraitzen dute oraindik. Irakaskuntzaren euskaratzea eta euskal kulturaren transmisioa, ez dira oraindik gauzatu, baina bidean goaz. Gaur egun ere aldaketak sortu nahian gabilta. Eskola eredu berri bat aldarrikatzen dugu Autonomia maila haniko eskola, forma bakarrek eskolatik forma anitzeko eskolara igaroko dena, bakoitzak bere Hezkuntza Proiektua izango duena, egungo

funtzionario sistema espainol eta frantsesari nabarmenki kontrajarria eta diruaren jestio zuzena egingo duena. Eskola eta irakaskuntza eredu hau, Iruineako Batzar nagusian onartu genuen.

Berrikuntza guztiak, berrikuntza izateagatik bakarrik, sortzen dute inguruan egonezina eta urduritasuna, eta egonezin hori areagotu egiten da agintean dauden pertsonetan, eta ere gehiago aginte hori badagokio Administrazio Publikoari, zeren eta ez da mugikortasuna Administrazioari atxeki diezaioketun bereizgarri bat.

Ikastolak, mugimendu bat garenez, definizioz, eta gizarte mugikor bati erantzun behar diogulako, mugikorrek gara. Eta mugikorrek izanik, gainera mugimendu organizatu bat gara. Eta gure antolamendua gero eta organizatuagoa dago, eta organizatua eta antolatua gaurko gizarte honek duen antolamendu pardiastatik kanpo. Partidu politikoko guztietako jendeak daude gurean, baina gizarte zibileko indar sozial bat gara eta hori ez da hain erraz onartzen eta horregatik gatazkak sortzen ditu.

Ez gara gaiztoak, ez gara aldrebesak, ez gara katramilaren bila besterik gabe gabiltzan talde bat. Gure nortasuna dugu, gure helburuak eta Hezkuntza Proiektua ditugu, eta izaera hori mantendu eta indartu nahi dugu. Horregatik gatazkak ditugu abertzaleak eta ez abertzaleak diren partidu politikoei. Gizarte honetako demokraziak ez du onartzen indar sozial organizatu bat.

Borroka asko egin ditu Ikastolak 30 urtetako historian, denboraz txikia, ekintzetan luzea eta zabala. Helburuak, lehen esan dudak bezala, irakaskuntzaren euskalduntzea eta euskal kulturaren transmisioa, ez ditugu oraindik lortu, baina lortzeko bidean gaude. Eta markatzen dugun bi-

dean, Iruinean onartutako eskola berriaren proiektuan, beste borroka berri bati heltzen diogu, titulartasun konpartituaren ildotik, gizarte zibilaren parte hartze zuzena eta maila berdineko Administrazioarekin batera aldarrikatuz.

Ez dakit gizartearen antolamendu osoan onartu behar den honelako berrikuntza bat, baina bai oso ziur nago, horrelakorik lortzen badugu Irakaskuntza munduan, benetan oso interesgarria izango dela euskal gizartearentzat.

Irakaskuntzaren ardura zuzena gurea da, gurasoena batez ere, eta ardura hori ez dugu utzi nahi besteren eskuetan, gure antolatu nahi dugu eta horretarako bat egin nahi dugu irakasleekin batez ere eta, baita ere, gizartearen gurekin lan egin nahi duten guztiarekin. Administrazioak ere hor egon behar du. Baina bera eta gu plano berdinean, elkarren eremua errespetatuz.

Ez da erraz horrelakorik lortzea, baina ez da erraza izan ezta ere orain arte ikastolak egin duten bidea.

Lehenik sinetsi egin behar dugu eskuartearen dugun proiektua dagoen onena dela. Irekiak nor-nahirekin hobeagoa lortzeko, baina hobeagorik ez dagoen bitartean, baita ere gurea defendatzeko.

Askotan esan dudak bezala Ikastolaren erantzunkizuna daramagu, aurrekoek Ikastola jarri zuten gure eskuetan, datozenei Ikastola utzi behar diogu indartuta, eta Ikastola ez bada Ikastola bainan hobeagoa izango den Hezkuntza Sistema berri bat.

ANTONIO CAMPOS

EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Ekainak 29, galdu ezineko zita

JADANIK kilometro asko egin dira tipi ttapa 91n. Ehundaka ibiltari gabilta, bidean milaka euskaldun hurbiltzen zaizkigularik, Euskalerriko bazter guztietatik barrena, gure errepresaliatu politikoei elkartzasuna adierazteko eta amnistia lortzeko borrokan bat egirik.

Errepresioaren aurkako Euskal Herriko talde mordo batek bultzatutako ekimen solidario hori, gure gizartearen errepresioaren aurka eta amnistia-aren alde bizirik dagoen sentsibilizazioaren froga da, eta baita gure gizartearen sektore esanguratsuek gure errepresaliatuekiko duten konpromezu sakona ere. Tipi ttapa 91ren helburuetako bat da errealitate errepresiboari buruz ezarritako informazio gurea apurtzea, eta modu sinple eta zuzenean hura Herriko hainbat sektoreei jakinaraztea beharrezkoa dela aurrera egitea erabakiortasunez, errepresioaren aurkako ekimenean eta erantzunean.

Herriz herri, auzoz auzo, egun hauetan neurri errepresibo desberdinen aurkako salaketa egingo du gizarteak orohar. Salaketa horrek zentzu handiagoa hartuko du, errepresio gertaerak izugarriak bait dira. Abertzaleen aurkako epaiketak Parisen, mugaren bi aldeetan atxilotetak, euskal intsumisioen aurkako epaiketak, exterminioko 100 gartzela baino gehiagoetako salaketa garrai-

siak, Irunberriko Arroilako urtemuga, GAL auzia amaitutzat emateko ahalegina...; azken finean txanponaren beste aldean, komunikabideek eta instituzioek paktuen politikekin ixilarazi nahi duten aurpegi estalia.

Errepresio neurri guzti horiek erakusten dute norainokoa den Espainia eta Frantziaren izaera antidemokratikoa, euskal gizartearen eskakizunak eta nahiak ase ordez, pertsonen eta herri dagozkien oinarriko eskubideak argi eta garbi zapaltzen dituen politikaren aldeko apostua egiten bait dute. Apostu politikoa, errepresioa, eta argi eta garbi erakusten du askatasunen eta Zuzenbideko Estatuaren defendatzaileak direla diotenen izaera errepresioa.

Beraien neurrien errepresioa eta basakeria, alternatiba antzu lez aurkeztu da tamaina handiko arazoiekin erantzuteko. Askatasun sentimenduak eta nahiak murriztu ordez, errepresioaren bide horrek lortzen duen gauza bakarra da, belaualdiz belaualdi, askatasunak lortzeko testigua goi goian egotea.

Horren erakusle onak dira, giza kostu eta sufrimendu handiarekin, milaka hiritar euskaldun, errepresaliatu politikoa izatearekin. Preso, errefuxiatu eta deportatu politikoa, egunez egun eta beraien zintotasuna eta koherentzia politikoa alde batera ez uzteagatik, beren eskubideak

uneoro zapalduak ikusten dituzte, bizi diren babesgabezia eta instrumentalizazio egoeran, herri osoaren nahiak errepresioarekin ezabatzea helburu duen estrategia planifikatu bat garatzearen bidez. Gizon eta emakume horiek gartzelatik, atzeritik eta deportaziotik Herri alai, dinamiko eta zintzo baten erakusgarri agerikoak dira, demokratikoki dagozkien eskubideak baino eskatzen ez dituztelarik, alegia, gure herria bere etorkizunaz eta askatasunaz jabetzea. Errepresaliatu politikoa iritzi publikoari erakutsi diote zein zanpatzaileak diren Espainiako nahiz Frantziako Estatuak, beraien gezurrezko kareta «demokratikoa» eta zein kriminala den horiek aurrera daramaten politika.

Gizon eta emakume horiekin, askatasun nahiekin, amnistiarekin, hilabete honen 29an galdu ezineko zita daukagu Bilboko kaleetan. Amaitzen ez den konpromezua amnistia lortzeko borrokan eta errepresio desagertzeko. Konpromezu horrek ahalbideratu behar du Amnistia izatea giltza, askatasunaren bidea irekitzeko. Gure herriak etorkizunean askatasuna lortzeko dena ematen ari direnekin daukagun zita horretara ezin gaitzek joan gabe gelditu.

TIPI TTAPA 91 IBILTARIAK

*Erredazioan itzulia

BERRIAK ZIRI



NELSON MANDELA
ANCko buruzagia
EL PAIS
1991-VI-25

«Santioekin jarraitu beharra dago 'apartheid-a' amaitu arte»




PETER DIEMEL
Alemaniako Wuppertal
Unibertsitateko irakaslea
DEIA
1991-VI-25

«Elkarrizketa aurrera eraman dadin saiatu behar da, konponbidea soilik bata besteari gailentzetik etorriko dela uste izan baino lehen»



PATXI ZABALETA
HBko Mahai
Nazionalako kidea
EL MUNDO
1991-VI-25

«Ez dugu uste posible denik UPNrekin gobernu programa negoziatzerik, baina bai PSOErekin»



LECH WALESA
Poloniako lehendakaria
ABC
1991-VI-25

«Nahi izango banu, lor nezake legebiltzarra desegitea»

ZAKILIXUT

© Olariagak

